La campaña de pesca comprende el conjunto de mareas realizadas en el año. Si, en el interés de aprovechar al máximo las posibilidades de explotación pesquera, la última marea de la campaña finalizara en fechas que hicieran imposible el disfrute de los días acumulados dentro del año natural, el disfrute de la totalidad de los días a los que tuvieren derecho se realizará, en todo caso, antes del inicio de la próxima campaña.

30. artikulua. Aurrerakinak.

1. Itsasoraztearen aurrerakina: Enpresek 60.000 pezeta arte ordaindu ahal izango dizkie ontziratu behar diren langileei.

2. Soldataren helbideratzea: Ontziratutako langileak aukeran izango du bere hileko alokairu bermatuaren %90 hilerok-hilerok bere etxera helbideratzea agintzeko.

3. Iritsierako aurrerakina: Egun jakin batera arte langile batek sortu dituen soldatek aukera ematen badute eta soldata helbideratzeko datara egunak falta badira, enpresek gehienez 50.000 pezeta aurreratuko dizkie langileei.

Enpresak horrela egin dituen aurrerakin guztiak, marea edo kanpainaren ondorioz langileak jaso behar dituen ordainsarietatik kitatuko dizkio.

31. artikulua. Zurgapena eta konpentsazioa.

Hitzarmen honetan finkatu diren baldintza ekonomikoak eta lanaldienak, berariaz apartekotzat adieraziko direnak izan ezik, zurgatu eta konpentsatu egingo dira lehendik langileek lortuta zituzten baldintza onuragarriagoekin.

V. KAPITULUA

32. artikulua. Ahalmena, agintea eta ardura.

Ontzi, portu eta itsasoko lanak antolatzea armadoreari dagokio eta bere izenean, ontziratutako langileen agintari gorenak bezala, ontziko arduradunei.

Ontziko agintariei dagozkien zuzendaritza ahalmenen bete-arazpenean, agintari horiek Langileen Estatutuan ezarritako arauak beteko dituzte langileei aginduak emateko orduan.

33. artikulua. Goi-zuzendaritzako pertsonala.

Ontzi bakoitzeko ordezkari legalak diren kapitainen edo maila horretara parekatuen zerrendak eta arrantza eginkizunaren ardura duten patroienak goi-zuzendaritzako pertsonalaren jitea izango dute. Ontzi bakoitzak gehienez kapitain edo parekatu bat eta arrantza patroia bat izango dute eta bakailao-ontzi bikoteek gehienez bi kapitain edo parekatu eta bi arrantza patroia.

Goi-zuzendaritzako pertsonalaren lan kontratu berezia abuztuaren 1eko 1.382/1985 Errege Dekretuan ezarritako edozein moduz eten ahal izango da, dekretu horrek arautzen baititu pertsonal mota horren lan harremanak.

Kapitain edo parekatuen kontratuak eteten direnerako kalte-ordaina lan egindako urte bete bakoitzagatik hamabi egunekoa izango da, hamar hilabeteko mugaz; eta arrantza patroiena eteten denean, goi-zuzendaritzako pertsonalaren lan harremanak erregulatzen dituen arautegian ezarritakoa, parteek beste erabakiren bat hartu dutenean izan ezik. Kapitainaren eta arrantza patroien eginkizunak pertsona bakar batek betetzen dituztenean, kontratua eteten denerako kalteordaina, arrantza patroientzat ezarritakoa izango da.

Goi-zuzendaritzako pertsonalaren lan harremana enpresaren ekimenez etengo balitz eta goi-zuzendaritzako lanpostu horretan zegoena, lanpostu horretara iritsi aurretik enpresan beste lanposturen bat betetzen zuena bada, langile horrek eskubidea izango du goi-zuzendaritzarako izendatua izan aurretik betetzen zuen lanpostura itzultzeko.

34. artikulua. Ontziko lan taula.

Ontzi guztietan, ontzi barruko lanen antolaketa taula erakutsiko da pertsonal guztiak ikusteko moduan.

Artículo 30. Anticipos.

1. Anticipo de salida: Las empresas abonarán a los trabajadores enrolados la cantidad de hasta 60.000 ptas.

2. Anticipo al domicilio: El tripulante enrolado podrá ordenar el envío mensual a su domicilio de la cantidad equivalente al 90% de su salario mensual garantizado.

3. Anticipo de llegada: Caso de que los salarios que hasta la fecha tuviera devengados lo permitiera y no estar próximo un envío al domicilio, las empresas abonarán a los trabajadores la cantidad de 50.000 ptas. como máximo.

Todos los anticipos pagados por la empresa, serán deducidos de la liquidación de la marea o campaña que corresponda percibir al trabajador.

Artículo 31. Absorción y compensación.

Las condiciones económicas y de jornada fijadas en el presente convenio, salvo las expresamente señaladas, podrán ser absorbidas y compensadas con la mejora de toda clase que existan con anterioridad.

CAPITULO V

Artículo 32. Facultad, autoridad y mano.

La organización de los trabajos a bordo, en puerto y en la mar corresponde al Armador y en su nombre, como máxima autoridad en lo que al personal embarcado afecta, a los que ejerzan el mando en el buque.

En el ejercicio de las facultades de dirección que corresponden a los mandos, éstos observarán en relación con los trabajadores los principios establecidos en el Estatuto de los Trabajadores.

Artículo 33. Personal de alta dirección.

La relación laboral de los Capitanes o asimilados que ostenten la representación legal del armador en cada buque y de los Patrones al mando de las labores de pesca tendrá carácter especial del personal de alta dirección. Cada buque contará como máximo con un Capitán o asimilado y un Patrón de Pesca y la pareja bacaladera con un máximo de dos Capitanes o asimilados y dos Patrones de Pesca.

La extinción del contrato especial de trabajo del personal de alta dirección podrá producirse en cualquiera de las formas previstas en el Real Decreto 1. 382/1985, de 1 de agosto, regulador de dicha relación laboral.

La indemnización por extinción del contrato de los Capitanes o asimilados será de doce días por año de servicio con el límite de diez mensualidades y el de los Patrones de Pesca la prevista en las normas reguladoras de la relación laboral especial del personal de alta dirección, salvo pacto entre las partes. En el caso de que la condición de Capitán y Patrón de Pesca concurriera en una misma persona, la indemnización a aplicar será la prevista para el Patrón de Pesca.

En el supuesto de que la relación laboral de alta dirección se extinguiera a iniciativa de la empresa, el personal que hubiere accedido a los puestos a los que corresponde dicha relación laboral tras haber ocupado otros puestos en la empresa tendrá derecho a reintegrarse al puesto que dentro de la empresa viniese desempeñando con anterioridad a su designación.

Artículo 34. Cuadro de trabajo a bordo.

En todo barco y en el lugar adecuado, para conocimiento de la dotación se dispondrá de un Cuadro de Organización de Trabajos a Bordo.

35. artikulua. Arrantzua itsasoan gobernatzea.

Ontziaren segurtasun arrazoiak direla edo arrantzua ez galtzeko, kapitainak eska diezaike tostartekoei, eta horiek derri-gorturik daude, ontzian bertan arraina, tresna edota ontzi-ratutako gainontzeko elementuak gobernatzea.

36. artikulua. Ontziz aldatzea.

Armadoreak eskubidea izango du ontzi batean erroldatu-tako arrantzaile edo pertsonala enpresako beste ontzi batean erroldatzeko, lanaren antolaketak hala eskatzen duenean, betiere beste ontzi horretan aurrekoan egiten zuen lana egiteko denean eta parteen artean hitzartutako edo itundutako kontratu baldintzak gordetzen direnean. Armadoreak zentzu horretan emandako agindua betetzen ez duen tostartekoak arauhauste larria egingo du.

Itsasoan arrantzan ari direla, langilerik ezin izango da ontzi batetik bestera aldatu, nahiz eta erroldatzeari buruz aurrean ezarritako arauak bete, non eta bizikidetasun eta/edo segurtasun premiak hala eskatzen ez duen. Holako egoeraren bat ematen denean kapitainak hartuko du erabakia, aldez aurretik ontzian dauden langileen ordezkarietara erabakiaren berri emanaz.

37. artikulua. Lan baldintzak era nabarmenean aldatzeko prozedura eta mugikortasun geografikoa.

Arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolaketarenak edo produktioarenak direla tarteko, langileei akordioz edo hitzarmen kolektiboz onartutako baldintza edota langileek dituzten onuratan enpresariak, bere ekimenez, aldaketa nabarmenak egin nahi baditu eta aldaketa horiek eraginak badituzte langileen kolektiboan, nahiz eta langile bakar bat ukitu edota lan zentro bateko langile guztiak, bada era horretako erabakiak honako prozedura beteko dute:

- a) Aldez aurretik erabakiaren eta horren arrazoen berri emango zaie langileen ordezkarietara.
- b) Langileen legezko ordezkarietara kontsultak egiteko, hamabost eguneko epea jarriko da, erabaki finkoa egin aurretik.
- c) Epe horretan, gehiengoak ez balu erabaki bateraturik lortuko, aldaketaren premia horretaz, arazoa PRECO II-ren iritzira jarriko litzateke; eta horrek emango luke azken hitza, betiere aurreko atalean ezarritako epea amaitu eta ondorengo 15 eguneko epearen barruan.

38. artikulua. Ekipajea galtzeagatiko kalteordaina.

Hondoratzea, sutea edota beste edozein arrazoi dela medio, ontzi batek ekipajea galtzen duen kasuan eta galera hori ez bada kaltetuaren erruz izan, armadoreak kalteordain bat ordainduko dio langile bakoitzari, eta hori hitzarmen honetan ezarritako hilabeteko alokairu bermatuaren baliokidea izango da.

Indarrean dagoen legeriak agintzen dituen beste onura batzuek gain, artikulua honetan zehaztu diren kalteordainak tostartekoaren oinordeko eskubidedunei ordainduko zaizkie, kalteordaina eragin duen istripuan langileren bat hilko balitz.

Enpresak aseguru poliza bat kontratatuko du kalteordain hori bermatzeko.

Artículo 35. Movimiento de la pesca en la mar.

Por razones de seguridad del buque o para evitar el deterioro de la pesca el Capitán podrá exigir a los tripulantes, y éstos estarán obligados, al movimiento de la pesca a bordo y de los más pertrechos o elementos embarcados.

Artículo 36. Cambio de buque.

El armador podrá disponer el enrolamiento de un tripulante en otro buque de la empresa por razones de organización para realizar las funciones que viniere desempeñando, respetándose las condiciones contractuales que hubieren pactado o rigieren entre las partes. El tripulante que no acatare esta orden podrá ser sancionado por falta grave.

Estando faenando en la mar, no podrá realizarse transbordo de trabajadores de un buque a otro, respetando lo anteriormente regulado para el enrolamiento, salvo necesidad contrastada de convivencia y/o seguridad, decidiendo en estos casos el Capitán, previa notificación a los representantes de los trabajadores en los buques.

Artículo 37. Procedimiento para la modificación sustancial de las condiciones de trabajo y movilidad geográfica.

Las modificaciones sustanciales, por razones económicas, técnicas, organizativas o de producción de las condiciones reconocidas a los trabajadores por acuerdo o pacto colectivo o disfrutadas por estos, en virtud de una decisión unilateral del empresario de efectos colectivos, que afecten a uno, varios o todos los trabajadores del centro de trabajo, se adecuarán al siguiente procedimiento:

- a) Notificación previa a la representación de los trabajadores, con indicación de los motivos en que se fundamenta tal modificación.
- b) Establecimiento de un período de consultas con la representación legal de los trabajadores, de una duración de 15 días.
- c) En caso de que en dicho plazo no se alcanzase un acuerdo mayoritario sobre la necesidad de tal modificación, se someterá la cuestión al procedimiento de mediación del PRECO II, quién deberá dictar el correspondiente laudo en un plazo que no exceda a los 15 días desde la finalización del período de consultas establecido en el párrafo anterior.

Artículo 38. Indemnización por pérdida de equipaje.

En caso de pérdida de equipaje de la dotación de un buque por naufragio, incendio o cualquier otra causa no imputable al perjudicado el armador abonará una indemnización a cada trabajador consistente en una mensualidad del salario garantizado de este convenio.

Con independencia de otros beneficios que con arreglo a la legislación vigente pudiera corresponder, las indemnizaciones a que el presente artículo se refiere serán abonadas a los derechohabientes del tripulante, en el caso de que este falleciese en el accidente.

La empresa contratará la oportuna póliza de seguro como garantía de ésta indemnización.

VI. KAPITULUA

39. artikulua. *Lizentziak eta opor baimenak.*

Lizentziak eta opor baimenak Langileen Estatutuan eta xedapen osagarrietan agindutakoaz arautuko dira.

Era horretako lizentziak eta opor baimenak hartzeko, Langileen Estatutuan ezarritako baldintzak bete behar dira, eta gainera langilea lehorrean egon behar da edota Estatuko porturen batean lehorreratu.

Holakorik gertatzen denean, egin beharreko bidaia gastuak lizentzia hartu behar duen langilearen kontura izango dira.

40. artikulua. *Eszedentziak.*

Eszedentziak Langileen Estatutuan eta xedapen osagarrietan ezarritakoaz arautuko dira.

Langileen Estatutuan aurreikusten diren eszedentzia sistema desberdinez gain, derrigorrezko eszedentzia bereziak ezarri dira honako kasuetarako:

- a) Derrigorrez eman beharrekoa izango da 1991eko urtarilaren 1a baino lehen kontratatutako langileak eskatzen duenean.
- b) Eszedentzian dagoen langileak ezin izango du bakailao ontzietan lan egin.
- c) Enpresak ez du beharkizun hori bete beharrik izango ontzi batean hiru langile baino gehiago eszedentzian daudenean.
- d) Aldi finko baterako eskatu ahal izango dira eszedentziak edota aldi aldakorerrako (mareak), baina eszedentziaren gutxiengo iraupena marea batena izango da eta gehiengoarena, 5 urte.
- e) Aldi jakin baterako eszedentzia hartzen denean, eszedentzialdi hori automatikoki luzatu litzateke Espainiako edozein portutik hurrengo itsasoratzea egin arte.
- f) Eszedentziaz dagoen langileak bere aldia luzatzeko eskubidea izango du, jada daukan eszedentzia amaitu baino gutxienez 15 egun lehenago eskatzen badu, betiere kontuan izanik eszedentzien gehiengo epea 5 urtekoa dela.
- g) Langileak berriro mota honetako eszedentzia eskatzeko eskubidea izango du, lanean egiten duen denborak aurreko eszedentziaren denbora bikoizten duenean.
- h) Eszedentzia bukatzean, automatikoa izango da laneratztea.
- i) Eszedentzia egiten den aldia ez da kontatuko antzintasun onuretarako.

VI. KAPITULUA

41. artikulua. *Lanaldia.*

Legeria orokorrak eta bereziak xedatzen duten lanaldia beteko dute itsasoko langileek.

Urtean lan egindako ordu arruntan arabera langileei dagoen urteko lanordaina, hitzarmen honetako II. eranskineko III. zutabeaz zehaztu da.

42. artikulua. *Marearen bukaera eta itsasoan egindako denbora.*

Marea bukatutzat joko da, ontzia Espainiako porturen batean sartzen denean itsasoan harrapatutako arrantza deskargatzeraz.

CAPITULO VI

Artículo 39. *Licencias y permisos.*

Las licencias y permisos se regularán por lo dispuesto en el Estatuto de los Trabajadores y disposiciones complementarias.

Su disfrute estará supeditado a que concurren los supuestos del Estatuto de los Trabajadores y además a que el trabajador se halle en tierra, o sea desembarcado en un puerto del Estado.

En todos los casos los gastos de desplazamiento que se pudieran producir serán por cuenta del trabajador con derecho al disfrute de la licencia.

Artículo 40. *Excedencias.*

Las excedencias se regularán por lo dispuesto en el Estatuto de los Trabajadores y disposiciones complementarias.

Independientemente de los diferentes sistemas de excedencias previsto en el Estatuto de los Trabajadores se fija la concesión obligatoria de excedencia especial con las siguientes condiciones:

- a) Su concesión será obligatoria a todos los trabajadores contratados con anterioridad al 1 de enero de 1991 que lo soliciten.
- b) El trabajador en excedencia no podrá prestar servicios en buques bacaladeros.
- c) La empresa no estará obligada a conceder este tipo de excedencia, simultáneamente a 3 o más trabajadores en cada barco.
- d) Se podrá solicitar por período determinado o variable (mareas) y su duración será como mínimo de una marea y como máximo de 5 años.
- e) En caso de excedencia por período determinado, se prorrogará automáticamente hasta la siguiente salida de puerto español.
- f) El trabajador que se encuentre en excedencia podrá solicitar una prórroga de la que está disfrutando, con un preaviso como mínimo de 15 días a la finalización de ésta, y con un límite total de 5 años.
- g) El trabajador podrá efectuar otra nueva petición de este tipo de excedencia cuando haya trabajado el doble del tiempo de la excedencia anterior.
- h) A la finalización de la excedencia el reintegro será automático.
- i) El período de excedencia no se computará para el abono de antigüedad.

CAPITULO VI

Artículo 41. *Jornada.*

La jornada laboral será la establecida en la legislación general y especial para los trabajadores de mar.

La retribución anual en función de las horas ordinarias de trabajo anuales es la señalada en la columna III del Anexo II.

Artículo 42. *Fin de marea y tiempo de permanencia en la mar.*

Se considerará fin de marea cuando el barco llegue a Puerto español para proceder a la descarga de la pesca obtenida.

Itsasoratu eta bi hilabete baino lehenago porturatuz gero, nahiz eta arraina deskargatu, ez da marea bukaeratzat joko, partee bestelakorik erabaki ezean. Holako kasuetan marearen gehiengo denbora, lehen itsasoratze eguna kontuan izanik erabaki behar da.

Lehorreratu gabe itsasoan egingo den gehiengo egonaldia bost hilabetekoa izango da; epe hori luzatu ahal izango da, aprobetxatu beharreko arrantza garaia ematen direnean; nolana ere, egoera horiek egiaztatu eta arrazoitu egin beharko dira.

43. artikulua. *Salmenten kontrola.*

Hitzarmen hau sinatu duten sindikatuek enpresako plantilako langileen artean aukera dezakete norbait, arrantza pisatzeko eta salmenta kontrolatzeko.

Eginkizun horretarako aukeratu izan den langileak tostartekoari dagokion alokairu bermatuaren soldata baliokidea jasoko du eginkizun horretan dagoen artean.

Armadorea derrigorturik dago ontzi bakoitzeko tostarteko ordezkariei marea arrantzuaren balioa ziurtagiriz egiaztatzen.

44. artikulua. *Pertsonalaren berrontziratzea.*

Aldi baterako edo behin-behingo ezgaitasun egoeran dagoen langileak alta hartzen duenean, eta holako kasuan baino ez, eskubidea izango du erroldatuta zegoen ontzira itzultzeko, eta ontziratzeak eragin ditzakeen bidaiaria eta dieta gastuak armadoreak ordainduko ditu. Ontziratzea ezinezkoa gertatuko balitz, armadoreak eskubidea izango du langile hori lehorreko lanak egitera bidaltzeko, harik eta ontzia porturen batera sartu arte; kasu hori ematen delarik, langileak armadorearen eskaerari uko egingo balio, langile hori borondatezko eszedentzia egoeran sartuko litzateke, harik eta bere ontziak marea berriari ekin arte; dena den, kasu horietan hitzarmen kolektibo honetako 17. artikuluan ezarritako baldintzak izango dira kontuan.

45. artikulua. *Bidaia eta etxetik kanpoko egonaldiak.*

Lanaren beharrezanengatik leku aldaketak egin behar dituzten langileak, nahiz eta lehorrekoak izan, horien ondorioz otorduak eta gauak beren etxetik kanpo egin behar dituztenean, beren ordainsariez gain mantenimendu dietak eta, egin behar balute, ostatu eta bidaiaria gastuen konpentsazioa jasoko dute, baita portu batetik besterako egonaldiak egiten dituztenean ere. Konpentsazio horiek enpresa bakoitzean erabakiko dira bertako langileentzat.

VII. KAPITULUA

LEHORREKO PERTSONALA

46. artikulua. *Alokairu bermatua.*

Lehorreko langileentzako gutxiengo alokairu bermatua hitzarmen honetako II. eranskinetako alokairu taulan ezarritakoa da. Langile batek, 1993ko urtarrilaren 1etik 1998ko abenduaren 31ra arteko soldata gehiketarik direla eta, jasotzen duen gutxiengo alokairu bermatua aipatu eranskinetako taulakoa baino gehiago jasotzen badu, orain arte jasotzen zuena kobratzen jarraituko du.

47. artikulua. *Antzinasunaren ordainsaria.*

Lehorreko langileek alokairu bermatuaren %5 jasoko dute antzinasun saritzat, enpresan lanean egindako bosturteko aldi bakoitzagatik.

En el supuesto de que la llegada a Puerto se produzca antes de dos meses desde la fecha de salida, aun cuando descargue la pesca, no se considerará fin marea, salvo acuerdo entre las partes. En este caso, la duración máxima de la marea deberá ser considerada teniendo en cuenta la fecha de la primera salida.

El tiempo máximo de permanencia ininterrumpida en la mar será de cinco meses, ampliable hasta siete meses por causas justificadas de la explotación pesquera que requieran ser aprovechadas.

Artículo 43. *Control de ventas.*

Las Centrales Sindicales firmantes del Convenio podrán designar de entre los trabajadores de plantilla de la Empresa, una persona para controlar el pesaje y venta de la pesca capturada.

Esta persona y mientras dure su misión será retribuida a razón del salario garantizado correspondiente al Marinero.

El Armador vendrá obligado a facilitar, a la representación de los tripulantes de cada buque, certificación acreditativa del valor de la marea.

Artículo 44. *Reembarque del personal.*

El trabajador que fuere dado de alta en su situación de IT o Invalidez Provisional, y sólo en estos casos, tendrá derecho a volver al barco al que estaba embarcado siendo por cuenta del armador los gastos de viaje y dietas que pueda ocasionar su reembarque. En caso de que el embarque no fuera posible, podrá ser llamado a realizar trabajos en tierra, en tanto el buque llegue a puerto, y en el caso de que se negare, pasaría a situación de excedencia voluntaria hasta que el buque vuelva a iniciar una nueva marea de pesca y se aplicarán las condiciones establecidas en el art. 17 del presente Convenio Colectivo.

Artículo 45. *Viajes y estancias.*

Todos los trabajadores, incluso el personal de tierra, que por necesidades del trabajo tengan que efectuar desplazamientos impidiéndoles realizar las comidas o pernoctaciones en su domicilio, o aquellos que tengan que realizar estancias con ocasión del traslado de un puerto a otro, además de su retribución percibirán las dietas de manutención, alojamiento y desplazamiento, en su caso. Estas compensaciones se fijarán en el ámbito de cada empresa.

CAPITULO VII

PERSONAL DE TIERRA

Artículo 46. *Salario garantizado.*

El salario mínimo garantizado para el personal de tierra será el establecido en la tabla salarial del Anexo II de este Convenio. En el supuesto del personal que, a resultas de los incrementos aplicados durante el 1-1-93 al 31-12-98, viniera percibiendo un salario mínimo garantizado superior al previsto en la tabla salarial del citado Anexo, se le mantendrá las retribuciones que viniera percibiendo.

Artículo 47. *Complemento de antigüedad.*

El personal de tierra percibirá un complemento personal de antigüedad del 5% del Salario Garantizado, por cada cinco años (quinquenios), de permanencia en la empresa.

48. artikulua. Aparteko haborokinak.

Lehorreko langileek bi haborokin jasoko dituzte urtean, bata udakoa eta bestea Gabonetakoa, bakoitza alokairu bermatzuko 30 egunekoak gehi antzinasunagatik dagokiena.

49. artikulua. Oporrak.

Lehorreko langileek 30 eguneko oporraldia izango dute eta hori alokairu errealean arabera ordainduko da. Ordainketa finkoak ez direnean, hau da, aldakorrek direnean, oporrak hartu behar dituen hilabetean kobratuko lukeena jasoko du oporraldian ere.

Oporrengatik ordaintzen diren alokairuak ezin izango dira ez zurgatu ez konpentsatu.

50. artikulua. Laneko arropak.

Enpresak urtero-urtero honako arropak eskuratuko dizkie langileei:

Uretako jantzia, oso-osoa, bi alkandora eta bi bonbatxo edo bi lan-jantzi.

51. artikulua. Fardela.

Marea bukatzen den bakoitzean langile bakoitzak 80-100 tamainako 20 kg bakailao jasoko du.

52. artikulua. Lanaldia.

Astean 40 orduko lanaldia beteko da astelehenetik ostiralera, larunbatak jai beraz. Alabaina, egoera bereziak ematen direnean, hala nola ontziak porturatzea edo itsasoratzea, eta abar, larunbatetan ere lana egin beharko da.

53. artikulua. Lizentziak.

Ondoren zehaztuko diren ordaindutako lizentziak emango dira eta honako aldietarako:

- a) Ezkontzagatik: 15 egun natural.
- b) Ezkontide edo seme-alabaren baten ebaketa kirurgikoagatik: 6 egun natural.
- c) Ezkontide, seme-alaba, guraso edota emaztearen erditzea: 6 egun natural.
- d) Anai-arreba, koinatu-koinata, aiton-amona, ezkontidearen guraso, seme-alaba eta aitagarreba-amagarrebaren heriotzagatik: 5 egun natural.

VIII. KAPITULUA

54. artikulua. Berme sindikalak.

A) Ontziratutako pertsonala:

Sindikatuaren ordezkariak edo enpresako batzordeko kideek beren eginkizun sindikalak betetzeko denbora bat izango dute. Alabaina, lan sistema berezi honek ez du aukerarik ematen ontzian ordezkariak sindikalak eskatzen dituen lanak burutzeko; ondorioz ordezkariak lehorreratzen direnean bete behar izaten dituzte eginkizun horiek.

Horretarako, Langileen Estatutuko 68. artikuluan aurreikusitako ordaindutako orduak hiru egun izango dira, benetan lan egindako 30 eguneko multzo bakoitzagatik, eta horiek alokairu bermatua gehi ordezkariaren lan kategoriari dagokion antzinasunaren arabera ordainduko dira. Era horretako orduak ordaintzeko, sindikatuak idazki bat bidaliko dio enpresariari langileen ordezkariak bete behar duen eginkizun sindikalaren arazoak emanez.

Artículo 48. Pagas extraordinarias.

El personal de tierra percibirá anualmente, dos gratificaciones, de Verano y de Navidad, a razón de 30 días del Salario Garantizado más antigüedad.

Artículo 49. Vacaciones.

El período de vacaciones será de 30 días y su retribución a razón del salario real. En caso de percepciones variables, se abonará a razón del salario que hubiera correspondido por estar en activo.

El importe de las vacaciones no podrá ser absorbido ni compensado.

Artículo 50. Ropa de trabajo.

La empresa facilitará anualmente a los trabajadores las siguientes ropas de trabajo:

Una ropa de agua completa, dos camisas y dos bombachos o dos buzos.

Artículo 51. Fardel.

Al finalizar cada marea se entregará a cada trabajador 20 kilogramos de bacalao tamaño 80-100.

Artículo 52. Jornada de trabajo.

La jornada de trabajo será de 40 horas semanales de lunes a viernes, librando por tanto los sábados. No obstante, y en casos excepcionales como salidas o entradas de barcos, etc., se deberá acudir a trabajar los sábados.

Artículo 53. Licencias.

Se establecen licencias retribuidas de la siguiente duración:

- a) Por matrimonio: 15 días naturales.
- b) Por intervención quirúrgica o enfermedad grave del cónyuge o hijo: 6 días naturales.
- c) Por fallecimiento de cónyuge, hijo, padres y alumbramiento de esposa: 6 días naturales.
- d) Por fallecimiento de hermanos, hermanos políticos, abuelos, abuelos políticos, hijos y padres políticos: 5 días naturales.

CAPITULO VIII

Artículo 54. Garantías Sindicales.

A) Personal embarcado:

Los Delegados Sindicales o miembros del Comité de Empresa dispondrán del tiempo suficiente para el desempeño de sus funciones. No obstante, la especificidad del sistema de trabajo, impide a los representantes sindicales la realización a bordo de su actividad sindical, obligándoles a realizar durante su permanencia en tierra.

Para ello, las horas retribuidas previstas en el artículo 68 del Estatuto de los Trabajadores, se reconvierten en tres días por cada 30 días de trabajo efectivo, y serán retribuidos a razón del salario garantizado más antigüedad correspondiente a la categoría profesional del representante. Para el abono de estos días, la Central Sindical deberá enviar a la Empresa correspondiente un escrito en el que se indique la actividad sindical a realizar por el representante.

Enpresak erraztasunak emango dizkiete itsasoan dauden langileen ordezkarietara beren sindikatuekin irratit-telefonoz harremanak izateko, betiere ontziko kapitainaren kontrolpean.

B) Lehorreko pertsonala:

Lehorreko pertsonalaren ordezkari sindikalek indarrean dauden lege eta arauetan ezarritako bermeak izango dituzte.

C) Sindikatuak:

Ontziak itsasoratu eta ondorengo bost egunen barruan, enpresek negoziaketa mahaian izan diren sindikatuak eskifaia guztiaren izen eta kategorien zerrendak eskuratuko dizkie, haiek hala eskatzen badute.

Negoziaketa mahaian langileek izango dituzten ordezkariak sindikatu ordezkari bakoitzak izendatuko ditu hauteskunde sindikaletan sindikatu horiek lortu duten emaitzen proportzioan.

55. artikulua. *Enplegu erregulazioko espedienteak.*

Enplegu erregulazioko espedienteak irekitzen direnean, ordezkariaren sindikatuari bidaliko zaio sindikatuen ordezkarietara izango diren harremanetarako jakinarazpena.

56. artikulua. *Aseguru poliza.*

Arrantza sektoreko enpresek aseguru poliza bat irekiko dute langileentzat, eta horrek lan istripu eta laneko gaixotasun egoez ematen direnerako ondorengo zenbatekoak aseguraturiko dizkie langileei:

- Heriotza: 1.500.000 pezeta.
- Erabateko ezgaitasun iraunkorra: 1.500.000 pezeta.
- Ezgaitasun iraunkor osoa: 1.500.000 pezeta.

Poliza horren eraginak beste poliza bat egin arte iraungo du.

Heriotza ematen denean, oinordekoen lehentasun ordena legez ezarritakoa izango da, langileak oinordeko jakinen bat izendatua izan ezik.

IX. KAPITULUA

57. artikulua. *Laneko osasuna.*

Enpresari eta langileek eskubide eta erantzukizunak onartuko dizkiote elkarri, Legeri Orokorrean eta itsasoko lanerako legeri berezian laneko medikuntza eta segurtasun eta higienearen gainean ezarritakoari dagokionean.

X. KAPITULUA

58. artikulua. *Arauhauste eta zigorrak.*

Arauhaustetzat joko dira indarrean dauden lege xedapenek eta batez ere hitzarmen honek ezarritako edozein eginkizun urratzea edo ez betetzea.

Arauhausteak bere garrantzi, eragina eta maltzurkeria kontuan izanik sailkatuko dira era honetara:

59. artikulua. *Arauhauste arinak.*

Arauhauste arinak:

a) Edozein lan mota egiterakoan, agindutako zerbitzuan kalte handirik ez dakarren atzerapena eragitea edo zabartasunez jokatzeta.

Las empresas facilitarán la comunicación desde el buque, por parte de los representantes del personal con sus Sindicatos, con control del Capitán del Buque.

B) Personal de tierra:

Los representantes sindicales del personal de tierra dispondrán de las garantías señaladas en las Normas legales vigentes.

C) Centrales Sindicales:

Las empresas, en los cinco días siguientes a la salida de los buques, facilitarán a los Sindicatos componentes de la mesa negociadora que lo soliciten, una relación con los nombres y categorías de todos los tripulantes.

Los miembros de la representación de los trabajadores en la mesa negociadora se designarán por cada Central Sindical representativa proporcionalmente a los resultados obtenidos por éstas en las elecciones sindicales.

Artículo 55. *Expedientes de regulación de empleo.*

La comunicación de consulta a los representantes sindicales para los casos de iniciación de expedientes de regulación de empleo, deberá ser enviada al sindicato al que pertenezca el representante.

Artículo 56. *Póliza seguro.*

Los trabajadores, tendrán por póliza suscrita por los armadores del sector, tendrán derecho a un seguro para caso de accidente de trabajo o enfermedad profesional, de las siguientes cuantías:

- Muerte: 1.500.000 ptas.
- Incapacidad permanente absoluta: 1.500.000 ptas.
- Incapacidad permanente total: 1.500.000 ptas.

Los efectos de esa póliza durarán hasta la suscripción de otra nueva.

En caso de muerte el orden de preferencia de beneficiarios será el que legalmente corresponda, salvo que el trabajador hubiere señalado un beneficiario concreto.

CAPITULO IX

Artículo 57. *Salud laboral.*

Los empresarios y los trabajadores asumirán los derechos y las responsabilidades recíprocas que, en materia de medicina, seguridad e higiene en el trabajo se establezcan por la Legislación General y la específica para los trabajos en la mar.

CAPITULO X

Artículo 58. *Faltas y sanciones.*

Se consideran faltas las acciones u omisiones que supongan quebranto o incumplimiento de los deberes de cualquier índole, impuestos por las disposiciones legales en vigor y en especial el presente convenio.

Las faltas se clasifican por consideración de su importancia, transcendencia y malicia en leves, graves y muy graves.

Artículo 59. *Faltas leves.*

Son faltas leves:

a) Las de demora o negligencia en la ejecución de cualquier trabajo que no produzca perturbación en el servicio encomendado.

b) Puntualtasunean hutsegitea behin, bi aldiz edo hiru aldiz, baldin eta hutsegite horrekin burutu beharreko zerbitzuan kalterik eragiten ez bada; holakorik gertatzen denean, arauhaustea larritzat joko da.

c) Lanpostutik alde egitea inolako arrazoirik gabe, nahiz eta denbora gutxirako izan.

d) Lankideekin sesioetan aritzea; sesio horiek asaldura eragiten badute, arauhaustea larritzat jo ahal izango dira.

e) Langileak bere ardurapean dituen material eta tresnak ez zaintzea behar bezala.

f) Garbitasun edo txukuntasun falta, lankideen kezarik sortzen ez duenean.

60. artikulua. Arauhauste larriak.

Arauhauste larriak:

a) Puntualtasunean hiru hutsegite baino gehiago egitea inolako arrazoirik gabe, hutsegiteak hiru hilabeteren barruan egiten direnean.

b) Hutsegitea lanean dagoen lankideren bat ordezkatu behar denean gertatzen bada, hutsegite bakar bat nahikoa izango da arauhaustea larritzat jotzeko.

c) Familia barruan gerta diren aldaketak, Gizarte Segurantza, Ogasuna, eta abarretan eragina dutenak, behar den puntualtasunez ez jakinaraztea. Datu horiek maltzurkeriaz ezkututzen direnean, arauhaustea larritzat joko da.

d) Laneko orduetan jokoan edota beste edonolako jolasean aritzea.

e) Lanean zabarkeriaz eta nagikeriaz aritzea, jarrera horrek lanaren ohiko martxa eragozten duenean.

f) Lanaren jardunean arduragabekeria larriz jokatzeko. Jarrera horrekin bera edo bere lankideak istripu arriskuan jartzeko badu edo instalazioak kaltetzeko arriskua eragiten badu, arauhaustea oso larritzat joko da.

g) Lanean sarritan mozkortzea edo drogatzea.

h) Lanari buruzko edozein gaitan arduradunek agindutakoa ez betetzea; desobedientzia horrekin diziplina urratzen bada edota jarrera horren ondorioz enpresarentzat edo lankideentzat kalteak sortzen badira, arauhaustea oso larritzat jo ahal izango da.

i) Norbere buruaren garbitasun faltak lankideek kezarik eragiten dituztenean.

j) Hiruhilekoaren barruan arauhauste arinak egitea, nahiz eta desberdinak izan eta horiek zigortuak izan.

61. artikulua. Arauhauste oso larriak.

Arauhauste oso larriak:

a) Iruzurra, desleialtasuna eta konfidantzaz abusatzea.

b) Materialak desagertaraztea, matxuratzea, apurtzea edota kaltetzea.

c) Lanean mozkortzea eta/edo drogak hartzea.

d) Armadorearekin zerikusirik ez dutenei derrigorrez isilpean gorde behar diren datuak ematea.

e) Nahita eta sarri laneko errendimendua murrizaraztea.

b) De una a tres faltas de puntualidad, siempre que del retraso no se derive perjuicio para el servicio a realizar, en cuyo caso tendrá la consideración de falta grave.

c) Abandonar sin motivo justificado el trabajo, aunque sea por breve tiempo.

d) Las discusiones con los compañeros de trabajo, si tales discusiones produjeran escándalo, podrán ser consideradas como faltas graves.

e) Incurrir en pequeños descuidos en la conservación de los materiales y efectos que tenga a su cargo.

f) Falta de aseo o limpieza personal que no produzca queja de los compañeros de trabajo.

Artículo 60. Faltas graves.

Se consideran faltas graves:

a) Más de tres faltas de puntualidad en la presentación en el puesto de trabajo no justificadas, cometidas en el período de tres meses.

b) Cuando tuviese que relevar a un compañero bastará una sola falta de puntualidad para que ésta se considere como falta grave.

c) No comunicar con la puntualidad debida los cambios experimentados en la familia, que puedan afectar a la Seguridad Social, Hacienda, etc. la falta maliciosa de estos datos se considerará como falta muy grave.

d) Entregarse a juegos o distracciones cualesquiera que sean, estando de servicio.

e) La negligencia o desidia en el trabajo que afecte sensiblemente a la buena marcha del mismo.

